

EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU BIZKAIAN, SANTURTZIN

- Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei, fabrikatzaileen markekin eta marka propioarekin eta freskoetan lidergoa dutenekin
- Saltokian zortzi langile ariko dira
- EROSKI k 52 frankizia inauguratu zituen 2018an
- Kooperatibak amaitu du CEAJErekin zuen lankidetzaren hitzarmena, enpresaburu gazteen ekintzazailtza lagundu eta sustatzeko

Santurtzi (Bizkaia), 2019ko maiatzaren 23a.- [EROSKI](#)k frankizia erako beste supermerkatu bat inauguratu du Santurtzin Santa Eulalia kaleko 6 eta 8 zenbakien artean. EROSKI/City izenekoa da saltokia, eta, tratu pertsonalizatuagoa eman ez ezik, apustu egingo du tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde; horretaz gainera, elikadura osasungarria sustatuko du, eta eguneroko erosketetan aurrezteko modu berriak eskainiko ditu. Supermerkatu hau inauguratuta, zortzi lanpostu sortu dira.

Supermerkatuak 3.000 produktu baino gehiago eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleak, eta 450 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiaren sasoiko tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak ogiak eta opilak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarriak behinena. Markaren Bezero-Bazkideen harremanerako programa berria da, eta %15eko deskontuak eskaintzen ditu 2.500 produktutan baino gehiagotan, baita sustapenak, berriazko eskaintzak eta Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 416.600 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero bazkideak, eta EROSKI Cluben abantailak eskuratzen ari dira dagoeneko Gipuzkoan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Salmentak %8 igo dira 2018an

%8 handitu ziren EROSKIren supermerkatu frankiziatuen sarearen salmentak. Kooperatiba formatu komertzialak berritzen ari da, merkatuan gaur egun dauden ereduei alternatiba bat eskaintzeko.

EROSKIk 52 frankizia inauguratu zituen 2018an, guztira 7.650.000 euroko inbertsioa egin zuen, eta 308 lanpostu sortu. EROSKI sendo doa aurrera kooperatiba Espainia osoan hedatua egon dadin. Frankizia erako saltokien sarea autonomia erkidego guztietara zabaldu da (Kanarietara izan ezik), eta aurtengo helburua da are gehiago hedatzea eta aurreko urteetan bezainbeste saltoki irekitzea; azken lau urteetan, izan ere, 267 baino gehiago inauguratu ditu, eta gaur egun, guztira, frankizia erako 500 supermerkatu izatera iritsi da.

Kooperatibak lankidetzaz hitzarmena berritu du Enpresaburu Gazteen Elkartearen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE), enpresari gazteen ekintzailatza lagundu eta sustatzeko. Hitzarmen horrekin, ekintzaile indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKIk autonomia erkidegoetako ekonomia gartzen lagundu nahi du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)